2022ko irailaren 19ko Herriko Kontseiluaren bilkura-dokumentua

Hor zirenak: Kattalin Duhalde,Sabine Etcheverry, Chantal Echevertz, Maité Oxarango, Samuel Biscay, Patrick Barneche, Fred Hernandez, Philippe Mongabure, Hervé Parachou, Ramuntxo Oteiza, Arño Gastambide

Bilkurara ezin etorria jakinarazia: Karine Perez, Anne Marie Darguy, Virginie Sabaloue

1. 2022ko kontu administratiboaren eta kudeaketa kontuaren onartzea – Hilerrietako aurrekontua 2022/06/30ean

Inbestimendua

Gastuak	Aurreikusia:	**4 534,00**
	Egina:	**4 362,00**
	Betetzekoa:	**0,00**
Irabaziak	Aurreikusia:	**4 534,00**
	Egina:	**4 533,47**
	Betetzekoa:	**0,00**

Funtzionamendua

Gastuak	Aurreikusia:	**0,00**
	Egina:	**0,00**
	Betetzekoa:	**0,00**
Irabaziak	Aurreikusia:	**0,00**
	Egina:	**475,00**
	Betetzekoa:	**0,00**

Kontualdiaren bururatzerako emaitza

Inbestimendua:	**171,47**
Funtzionamendua:	**475,00**
Emaitza orokorra:	**646,47**

Kontu administratiboa onartu da bururatze egunean

2. Hilerrien aurrekontua bururatzean emaitza esleitu da aurrekontu nagusian

2022ko maiatzaren 31ko deliberamenduaren bidez erabaki da hilerrietako aurrekontu gehigarria bururatzea.
Beraz, funtzionamendu soberakina eta inbestimendu soberakina behar dira herriko aurrekontu nagusira aldarazi, eta horren ondorioz emaitzen esleipena aldatuko da herriko aurrekontuan.

Emaitzak esleituko zaizkio herriko aurrekontu nagusiari:

- Emaitza funtzionamenduetara erakarri da (002): 54 691.06€
- Inbestimendu emaitza erakarri da (001): defizita 35 638.14€

3. Aldaketa erabakiak

- Hilerrietako aurrekontuaren bururatzea

INBESTIMENDUA

Gastuak		Irabaziak	
Artikulua (Kap.) - Operazioa	Zenbatekoa	Artikulua (Kap.) - Operazioa	Zenbatekoa
2313 (23) - 172 : Eraikitzeak	171,47	001 (001) : Inbestimendu soberakina erakarria	171,47
	171,47		**171,47**

FUNTZIONAMENDUA

Gastuak		Irabaziak	
Artikulua (Kap.) - Operazioa	Zenbatekoa	Artikulua (Kap.) - Operazioa	Zenbatekoa
615221 (011) : Eraikin publikoak	475,00	002 (002) : Funtzionamendu soberakina erakarria	475,00
	475,00		**475,00**

Gastuak orotara	**646,47**	**Irabaziak orotara**	**646,47**

-Ordena operazioak (inbentario erregulazioa)

INBESTIMENDUA

Gastuak		Irabaziak	
Artikulua (Kap.) - Operazioa	Zenbatekoa	Artikulua (Kap.) - Operazioa	Zenbatekoa
2041582 (041) : Eraikinak eta muntadurak	28 324,55	2121 (041) : Zuhaitz eta zuhaixken landatzea	2 430,27
2128 (041) : Lursailen beste antolaketak eta antolamenduak	49 556,85	2138 (041) : Beste eraikuntzak	9 868,38
21312 (041) : Eskolako eraikinak	9 868,38	2138 (041) : Beste eraikuntzak	533 364,98
21318 (041) : Beste eraikin publikoak	552 599,32	2151 (041) : Bide sareak	125 304,67
21531 (041) : Ur ekartze sareak	10 961,80		
21538 (041) : Beste sareak	15 789,59		
21578 (041) : Beste bide material eta tresnak	342,00		
2188 (041) : Beste immobilizazio gorpuzdunak	3 525,81		
Gastuak orotara	**670 968,30**	**Irabaziak orotara**	**670 968,30**

4. M57 nomenklaturaren plantan ezartzea 2023ko urtarrilaren 1etik goiti

Lurralde elkargoek eta haien erakunde publikoek hauta dezakete, biltzar erabakitzaileen deliberoen bidez, metropoliei aplikagarri zaizkien M57 aurrekontu eta kontabilitate arauak finkatzen dituen mugak onartzea. M57 bilakatuko da tokiko elkargo guzien zuzenbide komuneko erreferentziala hemendik 2024ko urtarrilaren 1era. Lurralde elkargoek betetzen dituzten eskumen guzien zehazteko sortu da eta aurrekontu malgutasuna ukaiteko parada emanen du.

Herriko Kontseiluak onartu du 2023ko urtarrilaren 1etik goiti M57 nomenklatura plantan ezartzeko proposamena.

5. Antolaketa zerga tasaren aldatzea

Antolaketa zerga tokiko zerga da, herriek edo departamenduek bildua. Eraikitze, berreraikitze eta eraikin baten handitze operazioetarako da, mota orotako instalazio edo antolaketetarako, hirigintza baimen hauetarik bat behar dutenean: eraikitze baimena, antolaketa baimena eta aitzinetikako baimena.

2014ko urriaren 30eko deliberamenduaren arabera, antolaketa zergaren tasa % 2tan finkatu zen, eta Departamenduak % 2,5eko tasa aplikatzen du.

Herriko Kontseiluak onartu du antolaketa zerga tasa % 2,5era igatea 2023ko urtarrilaren 1etik goiti.

6. Etxexuriko herri-bidearen zabaltzea

2022ko maiatzaren 31ko deliberoaren arabera, Etxexuriko herri-bidea zabaltzeko proposamena kontuan hartu zen eta inkesta publikoa iragan da 2022ko agorrilaren 30etik buruilaren 13ra. Leku hori segurtasun neurrien arabera ezarri behar da, gero eta jende gehiago ibiliko baita handik herriko lotizamendua antolatuko delarik.
Ez da erreklamaziorik bildu proiektuaren kontra eta aldeko iritzia eman du ikuskari-ikerketa egileak.
Herriko Kontseiluak onartu du bidearen zabaltzeko beharrezkoa den lur-zerrendaren erostea.

7. Falta izateko baimen berezien plantan ezartzea

Lurralde elkargoetako langileek falta izateko baimen bereziak ukan ditzakete. Herriko Kontseiluak ditu falta izateko baimen berezi horien arrazoiak, iraupena eta modalitateak finkatu behar.

Herriko Kontseiluak onartu du: falta izateko baimen berezien emateko posibilitatea aurreikustea ondoko familia-gertakarien karietara, urte zibil baterako, auzapezak estimatu zerbitzu beharren arabera.

ARRAZOIAK	IRAUPENA DENBORA OSOKO LANGILE BATENTZAT	ESLEIPEN OSAGARRI MODALITATEAK
Langilearen elkartasunezko hitzarmen zibila	5 lanegun (gertakariaren segidan)	
Haur baten ezkontza	3 lanegun (gertakariaren segidan)	
Arbaso, anaia, ahizpa, osaba, izeba, iloba, koinata baten ezkontza	1 lanegun	
Espos lagunaren, legez bizikidetuaren edo bizikidearen heriotza/ehorzketak	10 lanegun	
Haur baten heriotza/ehorzketak	10 lanegun	
Beste arbasoen, aitatxi-amatxien, espos lagunaren aitatxi-amatxien, osabaren, izebaren, ilobaren edo koinataren heriotza/ehorzketak	5 lanegun 1 lanegun	
Espos lagunaren, legez bizikidetuaren edo bizikidearen eritasun larria	3 lanegun	
Haurraren eritasun larria	3 lanegun	
Aitaren, amaren eritasun larria	3 lanegun	
Buraso baten espos lagunaren edo espos lagunaren buraso baten eritasun larria	3 lanegun	

Beste arbasoen, anaiaren, ahizparen, aitatxi-amatxien, espos lagunaren aitatxi-amatxien, osabaren, izebaren, ilobaren edo koinataren eritasun larria	1 lanegun	
Sortzea edo adopzioa	3 lanegun gertakariaren ondoko 15 egunetan	
Eri den haurraren zaintza (Haurren adin mugarik gabe ahalmen urriko haurren kasuan) Baimena urte zibil bakoitzeko da	6 lanegun 1 haurrentzat 7 lanegun 2 haurrentzat 8 lanegun 3 haur eta gehiagorentzat	

Falta izateko baimena amatasunari loturik

ARRAZOIAK	IRAUPENA DENBORA OSOKO LANGILE BATENTZAT	ESLEIPEN OSAGARRI MODALITATEAK
Lan tenoreen antolaketa	Gehienik 1 oren eguneko	
Erditzeko prestakuntza saioak	Saioen denbora	
Nahitaezko mediku azterketak: 7 erditu aitzin, 1 ondotik	Azterketaren denbora	Falta izateko eskubidezko baimena

8. Langile kopuruaren berrantolatzea

Herriko Kontseiluak onartu ditu lanpostu hauei lotu aldaketak

Langile-kopuruaren taula berria:

Postu iraunkorrak	Dagokien maila	Saila	Asteko bana besteko lan denbora
Herriko etxeko idazkaria	*Administrazio laguntzailea Erredaktorea*	*C eta B*	*Denbora osoa (35 oren)*
Zerbitzu teknikoetako langilea	*Teknika laguntzailea 2. mailakoa*	*C*	*Denbora osoa (35 oren)*
Zerbitzu teknikoetako langilea	*Teknika laguntzailea*	*C*	*Denbora ez osoa (17.5 oren)*
Lurraldeko animazio laguntzailea	*Animazio laguntzailea*	*C*	*Denbora osoa (35 oren)*
Zerbitzu teknikoetako langilea	*Teknika laguntzailea*	*C*	*Denbora ez osoa (17 oren)*
Zerbitzu teknikoetako langilea	*Teknika laguntzailea*	*C*	*Denbora ez osoa (6.5 oren)*

9. Agirien publizitate arau berriak

2022ko uztailaren 1etik goiti, agiri eta erabaki arautuen publizitatea nahitaez elektronikoki eginen da, webgunean.
Halere, 3 500 biztanle baino gutiagoko herriek dispentsa ukan dezakete. Horretarako, deliberamenduz hauta dezakete zer moldetan egin herriko agirien publizitatea:
afixen bidez, paperean argitaratuz, elektronikoki argitaratuz.

Eztabaidatu ondoan, Herriko Kontseiluak erabaki du hedapena elektronikoki egitea. Bilkura agiria ere hala eginen da, baita ere txosten laburra (ez da nahitaezkoa)

Gainerako gaiak:

Ekoizleen ondoko merkatua 2022ko urriaren 8an iraganen da, 17:00etan. Ekoizle franko interesatuak agertu dira (hamar bat). Komunikazioa laster eginen da.

Irakurgai ontzia. Herritar eta kontseilukide batzuek euskarri egokia nahi dute. Erabaki da jostalekuan ezartzea eta euskarria fabrikatzea.

Pizza banagailu baten instalatzea galdegin da. Herriko Kontseilua franko kontra da denetan agertzen diren horrelako instalazioa ezartzeko.

Antzuolarrak noiz etorriko diren oroitarazi da: 2022ko urriaren 23an, igandean. Herriko Kontseiluak behar du bazkaria antolatu eta zerbitzatu (Kattalin, Philippe, Arño eta Samuel).

Gutunen arazoa Postan – helbide metrikoa erabiltzea nahitaezkoa da-. Oroitarazi da herritarrek behar dutela beren helbidea aldatu 2019an errezibitu duten helbide numerikoa erabiliz. Postak ez du gehiago zenbakirik gabe eta helbide zaharrarekin diren gutunak hartzen eta banatzen.
Lurralde eremuko auzapezek gutun bat idatziko dute eta hitzordua galdatuko Posta malguago izan dadin.
Galdatuz geroz, Herriko Etxeak bizileku frogagiri bat egiten ahalko dizu.

2022ko iraileko berripapera aste bukaeran atera beha liteke, herritarrei banatuko zaie.

Garapen iraunkorraren astea – Aiherrako harrobiaren zaharberritzeari so eginen diogu eta hartan natura berriz ezartzeari
2022ko urriaren 13a atxiki da Aiherrako eskolako ikasleentzat eta herritar boluntarioentzat.
Ukan bezain laster, modalitateak jakinaraziko ditugu. Helburua da gune horri buruz komunikatzea, antolaketaren segida pentsatzea eta izen baten ematea.

Bilkura 22:00etan bururatu da

Arño Gastambide